

EUSKAL HAUR LITERATURAREN HISTORIAZ

Mariasun Landa Etxebeste



Gaur egun euskal haur literaturari buruz azpimarratzen diren zenbait hutsune ezagunak bezain aldarrikatuak izan dira behin baino gehiagotan: kritika eza, informazio leku eskasak, autore profesional falta, itzulpen politika serio baten beharra, gazteentzako literaturaren urritasuna eta abar.

Baino egungo egoera ondo ulertzeko euskal haur literatura-
ren panoramika historikoaren beharrean aurkitzen ginen: nondik gatozen, nora jo beharko genukeen hobeto jakiteko, alegia. Seve Callejak eta Xabier Monasteriok, 1988an argitaratu zuten "Historia de la literatura infantil vasca" liburuak, hutsune hori bete egin zuen neurri handi batean, gutako askorentzat ezinbesteko erreferentzia bilakatu zelarik. Ikerketa lan baten zatia genuen hura eta zortzi urte geroago lan osoa eta euskaraz eskuratzeko parada izan dugu: "Haur literatura euskaraz", Labayru-BBKren bidez argitaratua eta Igone Etxeberriaren itzulpenaz¹.

Liburua oinarritzko galdera batekin zabaltzen da: zer da haur literatura? Ez da galdera erraza, nahikoa anbigua eta nahasgarria baizik. Haurrek egindako literatura? Haurrentzat egindakoa? Haurrek egin izan gabe haurrek beretzat hartu duten literatura?... Eztabaida honek tradizio luze samarra du. Benedetto Croce-k, adibidez, haur literatura sorketa literario mugatu eta desbideratu egiten zuela zioen, ez zela benetazko artea, alegia. Literatutasun hori zalantzan jartzea ez da harritzekoa, historian zehar eta kultura ezberdinetan haur literaturari atxiki ohi zaizkion helburu moralizante-didaktiko-politikoak ikusirik.

Hala ere, haur literatura literatur mota berezizat kontsideratzea da, gaur egun, gehiengoaren iritzia. Zergatik berezia? Helduek haurrentzako egin delako, haurren egitura mental, baliabide espresiboak eta mundu ikuspegi berezia eskaintzen saiatzen delako.

Izan ere, euskal kulturaren historian haur literaturak ezagutu dituen gorabeheren buruzkoak dira liburuaren atal mardulenak, baita haur literaturarekin erlazionaturik egon daitezkeelakoan

aztertzen diren almanakak, eliz libururak, silabarioak, testu didaktikoak ere. Hemengo haur literatura Europako bestekin konparatzea ere izan zen egileen beste helburuetako bat, hemengo bereizkuntzak hobeto aztertu eta ulertzearen ziur asko.

Zeintzuk izan daitezke euskal haur literaturaren ezaugarri historiko horiek? Nonbait ez dira beste kultura hurbiletan eman direnak baino bereziagoak: kristautasun, abertzaletasun eta didaktismoek eragindako ezaugarriak dira gureak. Euskal folkloretik sortua, liburu didaktiko eta erlijiosoen bidez bideratua, abertzaletasun sentimenduek bultzatua, gure haur literaturak azken urteotan bakarrik hartu duela nolabaiteko espezifikotasuna esan daiteke. Berez, euskal haur literaturari bereiztasun bakarra euskararen egoera diglosiko tamalgarririk etorriko litzaioke, euskal literaturaren historian ikus daitekeen gauza bera.

Euskal haur literaturaren bilakaeran argialetxeek izan duten lekuari ere azterketa sakona eskaintzen zaio aipatutako liburuan. Lopez de Mendizabal bezalako euskalzale porrokatuek egin zuten lan eskerगतिक hasi eta egungo haur literatura bultzatu duten argialetxeen emaitzak aztertu arte...

Ikertzaileek iturri askotara jo dute liburu hau egiterakoan: Azkue liburutegia, Jon Bilbaoren lanak, J.M. Torrealdairen ikerketak, euskaraz argitaratutako artikulua eta liburuak, baita haur eta gazteentzako 20 literaturgileri buruzko iradokizunak eta testuak ere.

Haseran esan dugunez, zortzi urteko atzerapenarekin heldu zaigu guztiz gomendagarria den liburu honen euskal bertsioa. Horrek deserosotasuna eta nahasketa sor ditzake irakurlearengan, nahiz eta Igone Etxeberriaren hitzaurre zehatz eta sakonak, guztiz txalogarriak, hutsune horiek orekatu nahi izan dituen gaur eguneko euskal haur literaturaren argazki gaurkotua eskainiz.

Dena den, ikerketa baten ondorioa den liburu hau ezinbesteko erreferentzia da euskal haur liburugintzaz eta haur literaturaz interesatuak daudenentzat, non gauden jakiteko nondik gatozen argitzen digun liburu baita.



1.- Seve Calleja: "Haur literatura euskaraz". Itzultzailea: Igone Etxeberria. Labayru-BBK, 1994.